

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Mendixurreko Kontzejuarekin egindako kudeaketa gomendiorako hitzarmena onartzea

Udalbatzak, 2020ko irailaren 24an egindako batzarrean, besteak beste, honako erabakia hau hartu zuen:

LEHENENGOA. Mendixurreko Kontzejuarekin egindako kudeaketa-gomendiorako hitzarmena onartzea, udalerriko energia-jarduketako plana egiteko. Honela dio, hitzez hitz:

“Energiaren eraginkortasu-naren arloko kudeaketa-gomendioa garatzen duen hitzarmena

Batzartuak

- Alde batetik, Igor Medina Isasa jauna, Barrundiako Udaleko Alkate-Udalburua.
- Bestetik, Roberto García Mancebo jauna, Mendixur herriko Kontzejuko Udalburua.

Agertzen dira

- Igor Medina Isasa jauna, Barrundiako Udaleko alkate-udalburua den aldetik, udalbatzak berariaz ahaldunduta,dagokion egunean egindako bilkuran.

- Roberto García Mancebo jauna, Mendixurreko Kontzejuko erregidore gisa, egintza hone-tarako berariazko ahalmena du, Auzo Batzarrak 2020ko otsailaren 7an emandako ebazpenaren bidez.

Azaltzen dute

Ondorioz, ordezkatzan dituzten korporazioen izenean jarduteko ahalmen legitimoa dutenez, hurrenez hurren aitortzen zaien gaitasuna erabiliz, hitzarmen hau formalizatzen dute, klausula hauen arabera:

Hizpaketak

Lehena. Araubide juridikoa.

Udalak eta Mendixurreko Kontzejuak hitzarmen hau sinatu dute, eta honako hauek ezarritako lege-araubidea bete dute:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 41/1989 Foru araua, uztailaren 19koa, Toki Ogasunak arautzen dituen.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena.

Bigarrena. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Mendixurreko Kontzejuak Barrundiako Udalari gomendioa ematea kontzejuaren jarduketan plan energetikoa egiteko. Plan horrek honako hauek hartzen ditu barnean:

- Jasangarritasun energetikorako Batzordea sortzea.
- Eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoaren inbentarioa, 70 kw-tik gorako potentzia termikoa duten instalazioen inbentarioa eta erreferenziako oinarritzko maila.
- Kontagailu elektriko digitalen monitorizazio energetikoaren urrutiko kontrola.
- Eraikin publikoen energia-ziurtagiria.
- Energia-jarduketako plana eta herritarrek parte hartzeko plana diseinatzea.
- Ehuneko 100eko energia berriztagarria erosteko lizitazio-proposamena.
- Administrazio langileentzako prestakuntza.
- Ebaluazioari eta emaitzei buruzko urteko txostena eta txostenen zabalkundea.

Hirugarrena. Gomendioaren irismena.

Mendixurreko Kontzejuak Barrundiako Udalari agindu dio Barrundiako udalerriko energia-jarduerako planaren barruan honako alderdi hauek egiteko:

- Zerbitzu-proiektua onartzea.
- Aurreko proiektuaren lizitazioa.
- Proiektuaren lizitazioa arautuko duen kontratua formalizatzea.
- Zerbitzu-proiektua gauzatzea eta ezartzea.

Laugarrena. Indarraldia

Gomendio honen indarraldia udalerriko energia-jarduketako planaren zerbitzu-proiektuaren lizitazio-prozedurarekiko finkatuko da, eta, gehienez ere, 2021eko ekainaren 30erako.

Bosgarrena. Klausula ekonomikoa

Hitzarmen hau Barrundiako Udalak finantzatuko du. Azken horrek diru-laguntzak eta laguntzak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio publiko eta erakunde pribatu batzuei, hitzarmen honetako jardueren kostua finantzatzeko.

Seigarrena. Lanen zuzendaritza teknikoa

Hitzarmen honetan agindutako kudeaketaren zuzendaritza teknikoa eta estrategikoa Barrundiako Udaleko Zerbitzu Teknikoetan egongo da.

Zazpigarrena. Datuen babeseta eta informazioaren segurtasuna

Barrundiako Udalak bere jarduerak egokituko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendura, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, bai eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora ere, eta behartuta egongo da Mendixurreko kontzejuaren kontura datu pertsonalak tratatzeko arduraduna den aldetik, erregelamendu eta lege organiko horretan xedatutakoa betetzera, bai eta hitzarmena sinatzean datuen babesaren arloan indarrean dauden edo hitzarmena sinatu bitartean indarrean egon daitezkeen xedapenak betetzera ere.

Barrundiako Udalak tratamenduaren arduradun gisa dituen betebeharrak:

Tratamenduaren arduradunak eta bere langile guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak edo jasotzeko jasotzen direnak enkargu honen helbururako soilik erabilteza. Datuak ezin izango ditu inola ere erabili bere helburuetarako.
- Datuak tratatzea tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera. Tratamenduaren arduradunak uste badu jarraibideren batek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra edo

Batasunaren edo estatu kideen datu-babesaren arloko beste edozein xedapen urratzen duela, eragileak berehala jakinaraziko dio arduradunari.

- Arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa idatziz egitea, honako hauek jasota:

– Eragilearen edo eragileen izena eta harremanetarako datuak, eta eragileak jarduten duen arduradun bakoitzarenak, eta, hala badagokio, arduradunaren edo eragilearen ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.

– Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamendu-kategoriak.

– Hala badagokio, datu pertsonalak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera.

– Honako hauei buruzko segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra:

- Datu pertsonalen seudoanimizazioa eta zifratzea.

- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta bizileku iraunkorra bermatzeko gaitasuna.

- Gorabehera fisiko edo teknikorik gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko gaitasuna.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu erregularra.

- Hirugarrenei datuak ez jakinaraztea, tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena izan ezean, legez onargarriak diren kasuetan.

- Hitzarmenaren xedea osatzen duten eta datu pertsonalen tratamendua dakarten prestazioetako bat bera ere ez azpikontratatzeko, arduradunaren zerbitzuen ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak izan ezik.

- Enkargu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gorde behar ditu, baita xedea amaitu ondoren ere.

- Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak estatutu-izaerako konfidentzialtasun-betebeharraren mende daudela bermatzea.

Zortzigarrena. Gardentasuna

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legetik eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legetik eratorritako gardentasun-araudia betetzen dela bermatzeko, hitzarmen hau Barrundiako Udalen Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

Bederatzigarrena. Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak izango dira, laugarren klausulan adierazitako indarraldia igarotzeaz gain, honako hauek:

- Aldeen arteko adostasuna, bi korporazioen osoko bilkurek berretsita.

- Administrazio bakoitzerako hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak ez betetzea.

- Hitzartutako prestazioak hitzarmen honetan itundutako baldintzetan ez betetzea edo gauzatzea ezinezkoa izatea, edo prestazioa aurreikusitako baldintzetan gauzatzen jarraitzeak interes publikoari kalte larria eragiteko benetako aukera izatea, hitzarmena aldatzea ezinezkoa den kasuetan.

Hamargarrena. Indarrean jartzea

Hitzarmen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean”

BIGARRENA. Igor Medina Isasa alkate-udalburuari ahalmena ematea kudeaketa-gomendioko hitzarmen hau sinatzeko.

Ozaetan, 2020ko irailaren 28an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA